

## Hondarribiko Mugikortasun Jasangarrirako Mahaiaren jardueraren memoria 2018-2019

### 1. Abiapuntua

#### a. Mugikortasun jasangarriarekiko interesa

Azken urteetan, Hondarribian, herritarren interesa piztu da jasangarritasunaren eta mugikortasunaren inguruan, eta horrek ekarri du Mugikortasun Jasangarrirako tokiko Mahaia eratzea. Interes horrek funtsezko aurrerapausoak ere eragin ditu, besteak beste, Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Ituna eta Hondarribiko Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana onartu dira. Aipaturiko interes hori udalaren egitekoetan ere ikusi ahal izan da, jasangarritasun-irizpideak txertatu baititu mugikortasunari dagozkion udaleko plan eta dokumentuetan: 2008an Tokiko Agenda 21 egin zuen, eta 2018an berrikusi; 2011n, Hiri Antolamenduren Plan Orokorra erredaktatzeko testuinguruan, mugikortasun-ikerketa bat egin zuen; 2016an, irisgarritasun-plan bat erredaktatu zen, eta 2018an mikrobus baten linearen bideragarritasunaren ikerketa egin zuen.

Udal jardueraz gain, mugikortasunari buruzko eztabaida publikoa pizteko beharrezko beste eragile batzuen artean azpimarratu behar dugu Balazta (Bidasoako Bizikletaren Aldeko Elkarte) bezalako elkarteen lana; 2016tik katalizatzen du, hain zuzen, gizartearen eztabaida eta interesa bizikleta garraio gisa erabiltzearen inguruan. Era berean, ikastetxeetako hezkuntza-komunitateak hobekuntzak eskatzen ari dira eskola inguruetarako, eta baldintza onak, ikasleen desplazamenduak seguruagoak eta osasuntsuagoak izan daitezen. Beste gizarte-ekimen interesgarri bat dugu Hiri Debekatuaren Mapen sorkuntza; Emeki emakumeen elkarteak azken urteetan egin ditu, segurtasunik edo erakargarritasun handirik ez duten puntu beltzak detektatzeko. Pixkanaka, eraile gehiagok erakutsi dute interesa mugikortasuna hobetzeko prozesuekiko, adibidez, adineko pertsonen elkarteen ordezkariak, merkatariek eta askotariko erakunde eta elkarteak, eta, egun, Hondarribiko Mugikortasun Jasangarrirako Mahaian parte hartzen dute.

#### b. Mahaia sortu eta lehen saioak

2017ko abenduan, udalak Hondarribiko Mugikortasun Mahaia sortzea sustatu zuen; elkarrizketagune bat hiriko mugikortasun- eta irisgarritasun-prozesuan inplikaturako eragileentzat (erakunde publikoak, alderdi politikoak, merkataritza- eta gizarte-elkarteak eta herritarrak oro har). Deialdiak arrakasta izan zuen, eta 2017ko abendua eta 2018ko iraila bitartean hiru saio egin ziren; jende ugari bertaratu zen, eta horrek gaiarekiko interes orokorra erakutsi zuen.

Saio horietan, mugikortasunari buruzko arazo zehatzak eztabaidatu ziren; HMJP erredaktatzeko lanen kontrataziorako oinarriak jarri ziren, prozesu parte hartzaile bat izateko beharra azpimarratuz, eta helbide elektronikoa bat jarri zen herritarren zerbitzura. Mahai beraren funtzionamendua ere hasi ziren definitzen, hainbat mugikortasun-gairi buruz batzordeak sortzeko proposamenarekin. Beste gai zehatz batzuen artean, mikrobusari buruzko ikerketa edo oinezkoen eta bizikleta-sareen arazoak landu ziren.



## 2. Laguntza-proposamena

### a. Dinamizazioa laguntzeko beharra

Aipatu da Mugikortasun Mahaia martxan jarri zenean, inplikaturako pertsona ugari bildu zela ideiak eta iritziak elkar trukatzeko. Hala ere, zenbait topaketaren ostean, ez zen aurrerapausorik sumatzen eta eztabaidetan ez zen ezer konkretatzea lortzen; eta horrek arrisku bat izan zezakeen: gero eta jende gutxiagok parte hartu nahi izatea saio errepikakor irekiak bilakatu direlako.

Inplikaturako pertsonak eztabaidarako gaiak proposatu zituzten, eta, lehen topaketen ostean, gai interesgarrien zerrenda bat osatuta zuten. Egituratutako prozesu batekin, gai horiek sakontasun handiagoarekin landu ahal izango lirateke. Gainera, udalak, posta elektronikoko bidez, aztertu beharreko beste arazo batzuen iradokizunaz gain Mugikortasun Mahaiaren funtzionamenduari buruzko proposamenak ere jaso zituen.

Hortaz, Hondarribiko Mugikortasun Mahai sortu berriak jarduera handizaleago bat sortzeko oinarria dagoeneko bazuen; partaidetzaren lehen zirkulu bilakatu zen mugikortasunari dagokionez, lotura izan zezan beste erakunde eta bizilagunen artean oro har. Horretaz gain, topaketek ahalmena zuten helburu zehatzak dituen prozesu baten barnean sartzeko; alegia, eztabaidarako edukiak faseka zehaztuko lituzke eta jarduerak egin, Hondarribiko etorkizuneko mugikortasun-eredua definitzen laguntzeko.

Paraleloki, 2018 amaieran, udalak Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Planaren erredakzioa kontratu zuen; horrek Mugikortasun Mahaiaren ekarpenen zati bat kanalizatzeko aukera eskaini zuen, eta konexio eta sinergia puntuak markatu HMJParen aurrerapausoetan eta Mahaiak berak egingo dituen urratsetan. HMJParen erredakzioak Mahaiaren mugikortasunaren profesionalak txertatzeko aukera ere eskaini zuen, gai teknikoak zehazten laguntzeko.

Horrek guztiak saioen dinamizazioa hobetzea, erreferentziak eskaintzea, aktak egitea eta prozesuari laguntzeko komunikazio-lanak egitea eskatzen zuen. Azken batean, bideratze-lan bat behar zen Hondarribiko Mugikortasun Jasangarrirako Mahaiaren jarduera errazteko.

## b. Helburuak argitu

Hondarribiko Mugikortasun Mahiaren lehen helburua da askotariko pertsonak eta erakundeak elkartzea lankidetzan aritu daitezzen herriko mugikortasun-eredua aldatzeko, bat egin dezaten kultura- eta gizarte-eraldaketek hirian egiten diren programa eta esku-hartzeekin. Testuinguru orokor hori aintzat hartuz, badira 2018ko azken hilabeteetan ezarritako beste helburu batzuk ere, eta horiek, hain zuzen, lagundu zuten urtebeteko bideratze-lana definitzen:

- Mugikortasun Jasangarriaren Planaren erredakzioa baino haratago jarduerak eta epeak dituen prozesu bati ekitea.
- Funtzionamendu eraginkor bat definitzea, pertsona eta kolektibo anitz eta ugariekin lan egiteko aukera eskaintzen duena eta eztabaida dinamizatuko duena.
- Bidelagun izatea, antolakuntzan lagundu, saioak dinamizatu eta informazioa bildu eta bidaltzea.
- Aholkularitza-lana egitea udalarekin saioen deialdirako behar adina denborarekin, adostutako ordutegian, gai-zerrenda batekin eta topaketa bakoitzaren akta bat egitea.
- Lanerako metodo argia erabiltzea, partaide guztientzako erreferentzia izan dadin eta parte hartzea susta dezan inklusioa eta aukera-berdintasuna kontuan harturik.
- Gaietan sakontzeko saioak egitea, hasieratik partaideen intereseko izan diren gaiak oinarrian harturik.
- Benetako aukeretatik abiatuz, mugikortasunari dagozkion aukerak konkretatzen laguntzea, diskurtso koherente eta bateratu bat eratzen laguntzeko eta paperean idatzita soilik ez geratzeko.
- Akordio orokor bat eskuratzea egungo mugikortasun arazo noizbehinkakoei nola aurre egin jakiteko. Gai nagusiak Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itun baten jaso daitezke, Mugikortasun Mahaiak hala erabakitzen badu.
- Epe-muga bat finkatzea eztabaida-prozesurako eta hainbat akordioetarako.

Helburu horiek urtebete igarotakoan berrikusiko ziren; horretarako, 2018ko azaroa eta 2019ko azaroa bitarteko denbora-tartea finkatu zen, Mahaia sustatzeko eta egonkortzeko, eta, amaitzeko, honako txosten hau idatzi eta entregatuko da.

## 3. Mahaiaren egungo funtzionamendua


### a. Eragile parte hartzaileak

2018ko urria eta 2019ko azaroa bitartean, erregulariki, hogeita hamar pertsona inguruk parte hartu dute: elkarrekin ordezkariek, eragile ekonomikoek, lantalde teknikoek eta erakundeetako eragileek. Egun, Mahaiak pertsona horien interesa eta konpromisoa bereganatu du; horietako hogeita saio guztietan egon dira, eta Hondarribiko mugikortasunaren inguruko lehen zirkulua eratu dute. Beste pertsona batzuk tarteka parte hartu dute, soilik saio batzuetara joanda edo beren iritzia posta elektronikoki bidez bidalita.

Memoria hau idazteko garaian, egungo kolektibo- eta erakunde parte hartzaileen zerrenda honako hau da:

- Herritarrak eta elkarteak
  - Nagusilan adinekoen elkartea
  - ONCE fundazioa
  - ACUBI kontsumitzaileen elkartea
  - Balazta bizikletaren aldeko elkartea
  - Ikastetxeetako ikasleen familia-elkarreak
  - Emeki emakumeen elkartea
  - Amute bizilagun-elkartea
- Eragile ekonomikoak
  - Ostalaritza elkartea
  - Dendarien elkartea
  - Merkatariak eta autonomoak
  - AUIF garraio-enpresa
- Lantalde teknikoak
  - Gazteria, Hirigintza eta Ingurumen sailtako udaleko lantalde teknikoak
  - Bidasoa Bizirik elkarteko lantalde teknikoak – Bidasoako garapen agentzia
  - HMJParen talde erredaktorea
- Erakundeetako eragileak
  - Udal gobernu (Alkatetza, Hirigintzako zinegotzigoa, Ingurumeneko zinegotzigoa, Merkataritza eta Turismoko zinegotzigoa)
  - Ordezkaritza duten alderdi politikoak
  - Udaltzaingoa
  - Ikastetxeak (zentroen helbideak)

Gainera, Mahaian bizilagun eta pertsona askok parte hartu dute beren kabuz; informazio guztia jaso dute, eta momentuko ekarpenen bat egin dute edo beste jarduera osagarri batzuetan parte hartu. Bigarren zirkulu zabalagoa anitza da eta iritzi gehiago eman ditu, eta askotariko ideiak kontrastatzen lagundu du.



## b. Antolakuntza eta komunikazio-kanalak

Mugikortasun Mahaia azken urteetan antolatu da funtzionamendu-irizpide batzuk oinarri hartuta; hainbat hilabetetan zehazten joan dira, eta Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunean jaso dira. Honako hauek dira irizpideak:

- Mahaiak aldizkako topaketa orokorrak egiten ditu, partaideek erabakitako maiztasunarekin. Edozein pertsonak eska dezake Mahaiko kide izatea, eta Mahaiko edozein kidek proposa ditzake topaketetan lantzeko edukiak, horretarako, honako helbide elektronikoa honetara idatzi beharko du: [mugikortasuna@hondarribia.eus](mailto:mugikortasuna@hondarribia.eus).
- Udalak Mahaian parte hartzen du, eta horren funtzionamendu egokian lagundu; egokiak deritzon lan edo baliabideak proposatzen ditu, besteak beste, Mahaiko komunikazioa eta deialdiak ahalbidetzen dituen posta elektronikoa kudeatzen du.
- Mahaiaren baliagarritasunak intelijentzia kolektiboa du oinarri, eta horretarako ezinbestekoa da pertsona eta talde anitzek parte hartzea, besteak beste, oinezkoen eta txirrindularien elkarteek, ikastetxeek, garraio publikoaren eta pribatuaren ordezkariak, hirugarren adinarekin eta desgaitasunen bat duten pertsonekin erlazionatutako erakundeek, bizilagunen elkarteek, eskualdeko garapenerako agentziek, zinegotziek, udaleko lantalde teknikoek eta interesa duten beste talde batzuk.



- Mahaiak gai zehatzak eztabaidatzeko espazioak sor ditzake, lantalde gisa, topaketa orokorretara ideiak ekartzeko edo jarduera osgarriak garatzeko. Talde horiek Mahaian parte hartzen duten pertsonak proposatu dituzte, eta Mahaiak berak onartu ditu.
- Lantaldeek beren kabuz ohiz kanpoko bilerak deitzeko autonomia dute, eta horietara Mahai orokorrean parte hartzen ez duten pertsonak ere joan daitezke, baina ordezkari bat izendatu beharko dute lantaldearen ekarpenak Mahaiari jakinarazteko.
- Mahaiak proposa ditzake aldizkako eztabaida eta topaketez bestelako jarduera eta egitekoak. Adibidez, Europako Mugikortasunaren Astea aitzakiatzat hartuta edo lantaldeak proposatutakoak oinarri hartuta, besteak beste, sentsibilizazio-ekintzak, jarduera ludiko eta festetakoak edo Mugikortasun Planaren garapenaren jarraipena egiteko tailerrak antolatu dira.
- Mahaiaren topaketa orokorren deialdiak denbora-tarte nahikoarekin egin behar dira; adostutako ordutegia gogoratu, eta topaketaren aurretik kontsultatu beharreko informazio garrantzitsua eman, baita landu beharreko gaiak ere. Beharrezkoa da bilera bakoitzaren akta egitea eta [www.hondarribia.eus/mugitzenda](http://www.hondarribia.eus/mugitzenda) webgunean argitaratzea.
- Eztabaida- eta jarduera-prozesuek eta baita Mahaian lantzen diren askotariko akordio eta proposamenek ere epe nahikoa baino mugatua behar dute emaitzak eskuratu ahal izateko.
- Urtero, garrantzitsua da funtzionamenduaren ebaluazio bat eta helburuen aldizkako berrikuspen bat egitea.



## ZERTAN DATZA *HONDARRIBIA MUGITZEN DA?*

Prozesu kolektibo bat da udalerriko mugikortasuna, jasangarriagoa, seguruagoa eta osasuntsuagoa izateko eta berdintasuna gehiago bermatzeko. Prozesu honetan auzokideek, talde eta elkarte desberdinek, talde teknikoek eta Hondarribiko Udaletxeak parte hartzen dute. Zuk ere bai mugikortasuna hobetu dezakezu!

Orain arte, gai bat lantzeko taldeak ez dira beren kabuz antolatu, baizik eta Mugikortasun Mahaiko pertsona eta talde guztiei zabaldutako saio monografikoetan landu dira. Topaketa orokorrez haratago, jarduerekin konexioa nahiko urria izan da planteamendu-, egonkorte- eta sakontze-saioek denbora-tarte horretan izan duten intentsitatea dela medio. Hainbat talde partaidek sustatutako jardueri buruzko informazioa bai partekatu da, Europako Mugikortasunaren Astea kokatutakoak esaterako. Azken topaketatan, denbora eskaini zaio elkarrekin funtzionamendu eta komunikazioren aldaketa posibleak pentsatzeari, eta baita jarraitzeko jarduerak eta interes-gaiak asmatzeari ere.

### c. Jarraipena

Talde bideratzailea deialdiak egin, topaketetarako dinamikak proposatu eta helburuak eta datak argitzeaz arduratzeaz gain, oharrak hartu, argazkiak atera eta topaketa guztien aktak egin ditu. Akta-dokumentu bakoitza webgunean dago argitaratua euskaraz eta gaztelaniaz, eskura, nahi duenak kontsulta dezan. Era berean, zenbait momentu garrantzitsutan, aurrerapausoak kontrolatzeko lan bat egin da, eta horretarako egoeraren azterketak, talde partaideei kontsultak eta udalarekin bilerak egin dira, laguntza-lana birbideratzeko baliagarri izan daitezen.

## 4. Mugarriak 2018-2019

Dagoeneko aipatu dugu Mugikortasun Mahaiaren jarduera, zenbait hilabetetan, Mugikortasun Jasangarriaren Planaren partaidetza-prozesuarekin batera egin dela; bi prozesu paralelo eta desberdinak izan dira, helburu eta denbora-tarte desberdinekin baina elkarren artean erlazionatuak. Hona hemen Mugikortasun Mahaiarekin zuzenean erlazionatutako mugarrien laburpena:

### a. Gai bati buruz eztabaidatzeko saioa (2018/11/13): motorrik gabeko mugikortasuna

Lehen hiru eztabaida-saio horien helburua zen Hondarribiko mugikortasunaren egoerarekiko eta ezaugarriekiko gutxieneko bat etortze bat eskuratzea, baliagarri gerta zedin Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itun bat prestatzeko.

Lehen saioan, motorrik gabeko mugikortasunari buruz hitz egin zen, bereziki oinezkoak, desgaitasunen bat duten pertsonen mugikortasuna, haurren mugikortasuna eta txirrinduen mugikortasuna azpimarratu zen. Taldekako lanaren bidez modu horiek indartzeko zenbait alderdi positibo aipatu ziren, eta, aldi berean, oinezkoen mugikortasunarekin erlazionatutako arazo puntual ugari atera ziren eta egiturazko beste batzuk ere, eskolako mugikortasunarekin eta txirrinduen mugikortasunarekin erlazionatuak.

### b. Gai bati buruz eztabaidatzeko saioa (2018/12/12): garraio publikoa, motordun mugikortasuna eta aparkamendua

Bigarren saioan, mugikortasunaren aldeko ustezko Itun baten irizpideak definitzeko asmotan, eztabaidaren ardatza lehentasunen hurrenkera izan zen, mugikortasun jasangarri, seguru, inklusibo eta oinarrian espazio-banaketa bidezkoa duena eskuratzeko.

Taldeka lan egin zen hainbat gairi buruzko galdera batzuen inguruan; arazoei arreta eskaini zitzaizen, eta irtenbide posibleak proposatu: garraio bideen lehentasuna, pertsona askotarikoen mugikortasuna, kutsadura, zarata, garraio publikoaren eskaintza, kotxearen erabilera, abiadura, espazioaren banaketa eta aparkamendua.

### c. Gai bati buruz eztabaidatzeko saioa (2019/01/16): mugikortasuna landa-gunean

Saioaren lehen zatian, hiri gunetik kanpoko mugikortasunari buruzko eztabaida izan zen ardatz. Mahai-inguru bateratuaren formatuan hainbat arazo sortu ziren eta zenbait irtenbide-proposamen. Landutako gaien artean, honako hauek azpimarragarri: landa-bideen sarearen egoera, oinezkoen mugikortasunerako baldintza egokirik ez egotea, biztanle helduenen arazoa, garraio publikorik ez

egotea eta esparru horretako mugikortasunaren urratsei eta beharrei buruzko informazio gehiago eskuratzeko beharra.

Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunari dagokionez, zenbait ideia eta eduki aipatu ziren beste udal batzuetako adibideekin. Aurreko saioetako zenbait ideia egonkortu ziren eta formulazio horretan jarraitzeko beharra azaldu zuten aho batez, tresna beharrezkoa baita mugikortasun jasangarriaren aldeko estrategia integral batean.

#### **d. Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunari buruzko lan-saioa (2019/03/06)**

Saio horren ardatza izan zen Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunaren zirriborroaren edukiak egitea. Lantaldeak antolatu ziren edukiak lantzeko, berrikusteko eta ordenatzeko; hasieran taldeetan landutako edukien bakarkako balorazioak egin ziren, eta, amaitzeko, komunean jarri ziren ideia guztiak. Saioa, beraz, aurrerapauso funtsezkoa izan zen Itunaren egitura eta edukien eztabaidan eta garapenean; emaitza dokumentuaren zirriborro berrikusi bat izan zen.

#### **e. Europako Mugikortasunaren Astea**

2019ko iraileko Mugikortasun Astea zela eta, Mugikortasun Mahaiak ez zuen aktiboki parte hartu ekintzen prestaketan. Hala ere, Mugikortasun Mahaian parte hartzen duten erakunde batzuk bai inplikatu ziren aurreikusitako jardueretan, baita eragile koordinatzaile gisa ere. Mugikortasun Mahaiak komunikaziorako kanal nagusia erabili zuen, deialdiaren posta elektronikoa, partaide guztiei Mugikortasun Asterako aurreikusitako jarduerak jakinarazteko. Martxa ziklista, mugikortasunari buruzko film baten proiektzioa edo Bitoriano Juaristi kaleko tailerra 2019ko Europako Mugikortasunaren Asteko ekintzen artean zeuden, eta Hondarribiko Mugikortasun Jasangarrirako Mahaian parte hartzen duten pertsona eta elkarteak ibili ziren bertan.

#### **f. Udalbatzaren babesa Itunari (2019/10/30)**

2019ko urriaren 30ean, Hondarribiko Udaleko Osoko Bilkurak aho batez onartu zuen Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana eta ahoz batez ere eman zion babesa Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunari. Mugikortasun Jasangarriaren Mahaian multzokatutako eragile askotarikoen lankidetzeta-lanak, ziurrenik, lagundu du gehiengoaren adostasuna eta babesa eskuratzen, baita alderdi politikoena ere, beharrezko akordioak sortzeko. Gutxienez, Mugikortasun Mahaiak lortu du udaleko agenda politikoan txertatzea eztabaidatutako gaiak, eta Hondarribian bada orain mugikortasunari buruzko topaketa- eta eztabaida-gune bat.

#### **g. Itunaren eta HMJParen aurkezpen publikoa (2019/11/06)**

Aurkezpen-saio horrekin *Hondarribia mugitzen da* prozesuaren lehen ziklo bat itxi zen, eta ekintzara pasatzeko eta Hiri Mugikortasun Jasangarriaren Plana (HMJP) abiarazteko erronkak eztabaidatu ziren. Saio amaieran deialdia egin zen ekarpen gehiago egiteko Mahaiaren funtzionamendua hobetzeko eta 2020ko jarduera zehazteko. Mugikortasun Mahaiak erabaki zuen 2019ko abenduaren 20 arteko epea jartzea, posta elektronikoko bidez, edozein proposamen jasotzeko.



## 5. Ondorioak

Hondarribiko Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunean islaturik geratu den bezala, egun, "Mahaiaren funtzio nagusia da Hondarribiko mugikortasunari buruzko aldizkako topaketak egiteko espazio bat edukitzea, inplikaturako pertsonen eta taldeen lan egin dezaten mugikortasun-eredua aldatzeko Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunaren oinarriak jarraituz".

Funtzio nagusi hori egonkortu zen Mugikortasun Mahaiaren jardueraren lehen urtean. Funtzionamendu-irizpideak ere finkatu ziren eta oinarrizko tresna beharrezkoak erabili: komunikazio-kanalak, akten erredakzioa, epeen jarraipena etab. Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Ituna, beraz, Mugikortasun Mahaiaren ordezkaturako talde eta erakundeen lankidetzaren emaitza da, eta hurrengo urteetarako erreferentzia-dokumentua. Mugikortasun Mahaiak gogor lan egin du adierazteko, besteak beste, lehenik eta behin oinezkoak aintzat hartu behar direla, eskola-bideak eta -inguruak bereziki garrantzitsuak direla, trafikoaren intentsitatea eta abiadura murriztu behar dela, bizikleta-sareak etenik gabeak izan behar direla edo ez dela nahikoa egitura-neurriekin eta, beraz, sentsibilizazio- eta kontzientziazio-ekintzak beharrezkoak direla.

Hala ere, Mugikortasun Mahaiko pertsonen ekarpen eta iradokizunek hobetu beharreko gai batzuk aipatzen dituzte edo etorkizuneko erronkak irudikatu, horien artean azpimarragarri honako hauek:

### a. HMJPren garapenaren jarraipena

Mugikortasun Mahaiak oso modu aktiboan parte hartu du Mugikortasun Plana egiten, eta, azken saioetan, zenbait pertsonen interes berezia agertu dute planaren garapenaren eta konkrezioarekiko epe labur eta ertainean. HMJPren garapena dagoeneko martxan da, baina beharrezkoa izango da jarraipenean Mugikortasun Mahaiaren partaidetza ezinbestekoa definitzea eta partekatzea eta azaltzea xehatzen joango diren ekintzen informazioa. Plana partaidetza anitzarekin egin bazen, egokiena izango litzateke askotariko eragileen partaidetzarekin garatzea ere, adierazle tekniko bidezko ebaluazioa baino haratago. Horixe da giltza aldaketak uler eta onar daitezten, Plana bizia izan dadin eta, etengabe, garapenean eta aldatzen ari diren udaleko eta herriko errealitateari eta beharrei egokitu ahal izateko.

### b. Ebaluaketa

Hondarribiko mugikortasunarekin erlazionaturako askotariko jarduerak uztartzen dituen *Hondarribia mugitzen da* prozesu bateratuak prozesuaren ebaluazioa dagoeneko bazuenez, ez da Mahaiko bideratze-lanaren ebaluazio formal bat egin. Bideratze-lan horretarako planteatu diren helburu orokor denak edo ia denak bete direla esan daiteke. Etorkizunean, interesgarria izango litzateke prozesuaren ebaluazio parte hartzaile bat txertatzea, bideratze-lanaren funtzionamendua baloratzeko eta baita partaideen asebetetzea ebaluatzeko ere, eta, azkenik, eskuratutako helburuen ebaluazio bat, urtero egiten diren aurrerapausoak egiaztatzeko.

### c. Lantalde autonomoak

Azken saioetan, pertsona batzuei iruditzen zitzaien astia falta izan zela zenbait gai arreta handiagoarekin eztabaidatzeko. Epeak betetzeko beharagatik beti denbora eta sakontasuna falta izan den arren, posible da lanerako espazio eta taldeak sortzea, paraleloki, arazo eta proposamenei denbora gehiago eskaintzeko, eta aurrerapauso horiek Mugikortasun Mahaiari jakinarazteko. Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itunean hori aurreikusi da, baina oraingoz ez da zehaztu. Ideia

hori martxan jartzeko, behar bada, talde bideratzailearen babes osagarri bat beharko litzateke, baina interesa duten pertsonen interes eta konpromisoaren arabera ere izango da.

#### **d. Topaketa orokorrak bestelako jarduerak**

Mugikortasun Mahaia beste ekimen batzuetara zabalduko da, bereziki, honako helburu hauek eskuratu ostean: Mugikortasun Jasangarriaren aldeko Itun bat adostea eta lankidetzan aritzea Mugikortasun Plana egiteko garaian. Interes berezia izango dute pertsona partaideek proposatu baina Mugikortasun Mahaian parte hartzen ez duten edo hiriko erabakietatik kanpo geratzen diren beste talde edo kolektibo batzuk inplikatzeko dituzten proposamenek; adibidez, jarduera ludiko eta hurrekiko sentsibilizazioa dutenak edota beste kolektibo batzuen eskaera zehatzei erantzuten dietenak. Zentzu horretan, dagoneko 2019an hasi dira Europako Mugikortasunaren Astearen deialdia erabiltzen, eta Mugikortasun Mahaian parte hartzen zuten zenbait taldek jarduerak koordinatu dituzte edo programatutako ekintzetara joan dira. Etorkizuneko deialdietan, Mugikortasun Mahaian inplikazioa areagotu daiteke, beste profil eta talde batzuetara iritsi ahal izateko.

Lantaldeen kasuan bezala, garrantzitsua da zaintzea espazio berriak eta hainbat jarduera martxan jartze hutsak indarrak ez kentzea Mugikortasun Mahaian topaketa orokorre; prozesuaren ildo nagusiari eutsi behar zaio, askotariko taldeek ideiak komunean jarriz eta aldizkako aurrez aurreko topaketak eginaz.

#### **e. Talde parte hartzaile berriak**

Azken hilabeteetan egiaztatu ahal izan da Mugikortasun Mahaian konstanteki lanean ari den talde inplikatu bat badela. Etorkizunean interesgarria litzateke saio guztietara joaten ez diren pertsonen partaidetza egonkortzea, eta interesik agertu edo mahaiaren berririk ez duten talde eta pertsonen partaidetza zabaltzea. Oraingoan, pertsona kopurua ez da gehiegizkoa topaketen funtzionamendu egokirako. Edonola ere, zenbait pertsonen partaidetza interesgarria gerta daiteke ez hainbeste saio orokorretan, baizik eta lan zehatzetarako lantaldeetan edo saio monografikoetan. Ahalegin berezia egin daiteke kontaktua eta gonbidapena egiteko, noizbehinkakoa nahiz aldizkako topaketetarako, adineko pertsonen kolektiboek, desgaitasunen bat duten pertsonen, gazteen, emakumeen, merkatarien, lan-zentro nabarmenen eta udalerriaz gaindiko erakundeen.

## Memoria de actividad de la Mesa de la Movilidad Sostenible de Hondarribia 2018-2019

### 1. Punto de partida

#### a. Interés por la movilidad sostenible

En los últimos años en Hondarribia ha habido un interés ciudadano creciente en torno a la sostenibilidad y a la movilidad que ha desembocado en la consolidación de la Mesa local de la Movilidad Sostenible y en avances fundamentales como son la reciente aprobación del Pacto por la Movilidad Sostenible y del Plan de Movilidad Urbana Sostenible de Hondarribia. Dicho interés venía reflejándose en la labor del Ayuntamiento que ha ido incorporando criterios de sostenibilidad en planes y documentos municipales relativos a la movilidad: en 2008 se elaboró la Agenda Local 21, revisada en 2018; en 2011, en el marco de la redacción del Plan General de Ordenación Urbana, se realizó un Estudio de Movilidad; en 2016 se redactó un Plan de Accesibilidad; y en 2018 se hizo un Estudio de viabilidad de una línea de minibús.

Además de la actividad municipal, entre otros agentes necesarios para el resurgimiento del debate público en torno a la movilidad cabe destacar la labor de organizaciones como Balazta (Bidasoako Bizikletaren Aldeko Elkartea), que desde 2016 cataliza el debate e interés social por la bicicleta como medio de transporte. Asimismo, las comunidades educativas de los centros escolares vienen demandando mejoras en los entornos de los colegios y condiciones para que los desplazamientos escolares sean más seguros y saludables. Otra iniciativa social de interés es la creación de Mapas de la Ciudad Prohibida elaborados en los últimos años por la asociación de mujeres Emeki Elkartea, detectando puntos negros de seguridad o falta de atractivo. Poco a poco, más agentes se han ido interesando por los procesos de mejora de la movilidad, como representantes de asociaciones de personas mayores, comerciantes e instituciones y organizaciones diversas que hoy forman parte de la Mesa de la Movilidad Sostenible de Hondarribia.

#### b. Creación de la Mesa y primeras sesiones

En diciembre de 2017 el Ayuntamiento impulsó la creación de la Mesa de la Movilidad de Hondarribia, un espacio de diálogo en el que tuviesen cabida los agentes implicados en los procesos de movilidad y accesibilidad de la ciudad, (instituciones públicas, partidos políticos, asociaciones comerciales y sociales, y la ciudadanía en general). La convocatoria tuvo éxito y entre diciembre de 2017 y septiembre de 2018 se celebraron tres sesiones que tuvieron una nutrida asistencia que demostraba el interés generalizado por el tema.

